

Euskal Poliziaren 2022ko delinkuentzia-memoria

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ERTZAINTZA

UDALTZAINGOA

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

AURKIBIDEA

12 ERTZAINTZAREN ETA UDALTZAINGOEN DATUAK

13 Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko 2019/2021/2022: Euskadi
13 Ziberdeliturik gabeko delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko 2019/2021/2022: Euskadi
14 Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko 2019/2021/2022: Lurralde Historikoak
15 Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko 2019/2021/2022: Delitu presentzialak/Ziberdelituak Euskadin
16 Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko 2019/2021/2022: Delitu presentzialak/Ziberdelituak Lurralde Historikoetan
17 Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko 2019/2021/2022: Delitu presentzialak/Ziberdelituak hiriburuetan
18 Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko, udalerrietan 2019/2021/2022:
22 Arau-hauste penalak 2019/2021/2022, delitu-motaren arabera: Euskadi
23 Arau-hauste penalak 2022, delitu-motaren arabera: Lurralde Historikoak
26 Pertsonen aurkako arau-hauste penalak 2022, delitu-motaren arabera: Euskadi
27 Pertsonen aurkako arau-hauste penalak 2022, delitu-motaren arabera: Lurralde Historikoak
30 2019/2021/2022an arau-hauste penalak, Ertzaintzak Estrategikotzat jotako arau-hauste penalen ondorioz: Euskadi
31 2019/2021/2022an arau-hauste penalak, Ertzaintzak Estrategikotzat jotako arau-hauste penalen ondorioz: Lurralde Historikoak
34 Europar Batasuneko arau-hauste penal komunak. Euskadi 2022. Euskadi
35 Europar Batasuneko arau-hauste penal komunak. Lurralde Historikoak 2022

38 ERTZAINTZAK ERREGISTRATUTAKO ARAU-HAUSTE PENALAK

39 Euskadin pertsona inkulpatuen eta arau-hauste penalen kopurua 2019/2021/2022
40 Lurralde Historikoetan pertsona inkulpatuen eta arau-hauste penalen kopurua 2019/2021/2022
43 Delitu-moten arabera pertsona inkulpatuen eta arau-hauste penalen kopurua 2019/2021/2022
44 Ertzaintzak estrategikotzat jotako arau-hauste penalak. Euskadi 2022
45 Europar Batasuneko arau-hauste penal komunak. Euskadi 2022
46 Indarkeria matxista
47 Gorrotozko arau-hauste penalak
48 Arau-hauste penalak ziberespazioan. Ertzaintzaren datuak
49 Ziberdelituen arau-hauste penalen bilakaera. EAE
50 Ziberdelituen arau-hauste penalen pisuaren bilakaeraren konparatiboa

51 ERANSKINAK

TESTUINGURUA

Txosten hau egiteko Ertzaintzak eta Udaltzaingoek bildutako eta Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzaren mende dagoen Ikerketa eta Azterketa Alorrak emandako datuak erabili dira.

Adierazitako delitu-motetako batzuk Barne Ministerioarekin adostutako estandarrei jarraiki bildu dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Europako estatistika ofizialak egiteko ezarritako arauan oinarrituta.

Arau-hauste penalei buruzko datuak dituzten Udaltzaingoak hiru lurralde historikoetako udalerri hauetakoak dira:

Araba: Vitoria-Gasteiz, Laudio-Llodio;

Bizkaia: Bilbo, Barakaldo, Getxo, Santurtzi, Portugalete, Basauri, Leioa, Durango, Galdakao, Sestao, Erandio, Amorebieta-Etxano, Mungia, Gernika-Lumo, Bermeo;

Gipuzkoa: Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz, Arrasate, Hernani, Tolosa, Lasarte-Oria, Hondarribia, Pasaia, Azpeitia, Andoain, Bergara.

2019ko datuak aldatu egiten dira ekitaldiko memorian emandakoekin alderatuta; izan ere, memoria horretan Udaltzaingoen datuak 25.000 biztanletik gorako herriei buruzkoak ziren, eta txosten honetan, berriz, 15.000 biztanletik gorako herrietan erregistratutakoak dira.

Ustekabeko krisi baten eraginak, 2022aren aurreko urteetan, Euskadin ezohiko beherakada ekarri zuen delituei dagokienez. 2021etik, normaltasuna arian-arian berrezarri zenetik, delinkuentzia-zifra globalak pixkanaka aurreko datuetara itzultzen ari direla ikusi da, eta pandemiaren aurreko garaiko erregistroetara iritsi dira 2022an. Hala ere, delitu guztiek ez dute pandemiaren aurreko garaiko portaera bera izan eta ez dira kopuru horietara iritsi; batzuek gainditu ere egin dituzte.

Ertzaintza –gizarte-egoera normaltasunera itzultzen ari zen heinean eta delinkuentzia-mailak berreskuratuko zirela aurreikusten zenez– prebentzio-ekintzak birmoldatzen eta planifikatzen hasi zen EBk estrategikotzat edo tipo komun gisa ezarritako arau-hausteetan. Gainera, jarduteko prozedura berriak indartu eta ezarri dira, sortzen ari diren delituetan nahitaez bete beharreko jarraibideen bidez.

EAEko delinkuentzia-egoeraren ondorio objektiboak baloratzeko eta ateratzeko, egokitzat jo da 2022ko delitu-egitateak 2019ko datuekin alderatzea; urte hori normaltzat har baitaiteke, 2021ean gertatutakoa ere kontuan hartuta.

Oro har, eta delitu-tipologia desberdinei buruzko datuak azaldu aurretik, nabarmendu behar da mugitzeko askatasunaren murrizketek ez zutela eraginik izan ziberdelituen gorakadan aldi horretan. Herritarrek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak gero eta gehiago erabiltzen dituzte hainbat esparrutan –hala nola etxean edo lanean–, eta horrek azalduko luke bertan emandako goranzko joera horri eustea. Horregatik, ziberdelituek gora egiten jarraitu dute, ondoren zehaztuko diren zifretara heldu arte:

- **Ertzaintzaren datuak**

  - Ziberdelituen % 41eko igoera 2019. urtearekiko.
  - 2022an arau-hauste penal guztien % 20 izan ziren.
  - 1.000 biztanleko tasa 3,01 puntu igo da ziberdelituen ondorioz.

- **Euskal Poliziaren datuak** (kontuan hartuta udaltzaingoek ez dutela ziberdelinkuentziari buruzko daturik)


  - Ziberdelituek % 4ko igoera ekarri dute arau-hauste penal guztiak kontuan hartuta (2019 eta 2022 artean).
  - 1.000 biztanleko tasa 2,64 puntu igo da ziberdelituen ondorioz, 3,01etik 5,65era.

Delituen globaltasunean ziberdelituen portzentajezko eragina kontuan hartu gabe, azken urteetako delituen gorakada nabarmen txikiagoa izango litzateke. Hala, 2019tik 2022ra bitartean, Euskadiko delinkuentzia-tasaren hazkundea 3 puntukoa izango litzateke, eta 5,6 puntukoa, berriz, ziberdelituak barne hartuta.


Ziberdelitu horiek hartzen ari diren garrantzia COVID pandemia-aldian ikusi ahal izan zen. Aldi horretan, delitu presentzialek beherakada nabarmena izan zuten –pertsonen mugimenduen murrizketek eraginda–, eta ziberdelituek gora egiten jarraitu zuten, grafiko hauen konparazioan ikus daitekeen bezala:

Arau-hauste presentzialak eta delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko Euskal Polizia


2017 2018 2019 2020 2021 2022




ARAU-HAUSTE PENAL PRESENTZIALEN BILAKAERA



Arau-hauste penalak ziberespazioan eta tasa 1.000 biztanleko Ertzaintza




ARAU-HAUSTE PENALEN BILAKAERA ZIBERESPAZIOAN



Ziberdelitu horietan, biktimari kaltea edo kalte ekonomikoa egilearen presentzia fisikorik gabe gertatzen da; eta delituaren kokapenak, bere birtualtasuna dela eta, ez du zertan bat etorri behar egilearen kokapenarekin; kasu gehienetan Estatuaren subiranotasunetik kanpo daude, eta nazioarteko lankidetzara jo behar da.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, bitarteko informatikoen bidez egindako ziberdelituak gainerako arau-hauste penaletatik bereizi dira, haien berezitasunek gainerako jokabide zigorgarrietatik bereizita aztertzea gomendatzen baitute.

Euskadiko delinkuentzia-mapa Euskal Polizia



Jarraian, zigortzekoak diren gainerako jokabide batzuen datuak aurkezten dira, ziberdelituak alde batera utzita:

· **Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren** aurkako arau-hausteak dira adierazgarrienak, delitu guztien % 62 hartzen baitute. Ondarearen aurkako arau-hauste horien % 72,5 **ebasketak**, **iruzur presentzialak** eta **kalteak** dira; % 58, arau-hauste guztiekin alderatuz gero.

- Pisu edo ehuneko handiena hazkunde jarraitua (2019an emandakoen % 2tik beherakoa) duten **ebasketei** dagokie (% 32).

- Aitzitik, **kalteak**, delitu guztien % 9 izanik, % 4 gehitu dira.


- **Iruzur presentzialei** dagokienez, EAEn salatu ziren ia 23.000 iruzurretatik % 20 baino ez dira mota horretakoak, eta horien zifrak 2019an erregistratutakoen antzekoak dira, +% 1eko igoerarekin.

- **Indarra erabiliz egindako lapurretek** (guztizkoaren % 12) beherakada kuantitatiboa izan dute, neurri handi batean, etxeetako eta enpresetako lapurreten beherakadak eraginda (% 32, guztira), delinkuentzia ibiltariaren aurka diseinatutako prebentzio- eta ekintza-planen eraginkortasunari esker, mota horretako arau-hauste gehienen protagonistak baitira.

[1] Kriminalitatearen Estatistika Sistemaren (SEC) datuen arabera, 2021ean, etxeen % 84k ordenagailua zuten, eta horietako % 95ek Interneteko konexioa.

· **Ziberespazioan egindako arau-hauste penalak**, delitu informatikoa edo Internet bidez egindako delitua, informatikaren eta telekomunikazioaren sistemen, aplikazioen eta/edo zerbitzuen esparruan edo horien bitartez egindako ekintza antijuridiko oro dira, dela haien bitarteko gisa, dela haien xede gisa.

Urtez urte jarduera IKTetara[1] bideratzen duen bilakaera sozial eta ekonomikoarekin bat etorriz, delitu horien hazkundeak pisu espezifiko handiagoa hartzen du EAEko delitu-jardueraren joera orokorrean.



Pertsonen aurkako delituak		
% 67,0	Mehatxuak eta derrigortzeak	293 / 722
% 17,8	Sekretuak argitara eta jakitera ematea	187 / 192
% 9,3	Jazarpena	29 / 100
% 4,0	Sexu-askatasunaren aurka	49 / 43
% 1,9	Pertsonen aurkako beste batzuk*	36 / 21

2019 2022

* Legez kanpoko sarbide informatikoa eta tratu laidogarria.

Ondarearen aurkako delituak		
% 99,7	Iruzurra	13.298 / 12.000 / 18.107
% 0,3	Jabetzaren aurkako beste batzuk**	75 / 48

2019 2022

** Kalte informatikoak, Jabetza intelektualaren aurkakoak eta irrati/telebista/bestelako zerbitzuetara legez kanpoko sarbidea.

Gainerako delituak		
% 96,9	Usurpazioa	295 / 843
% 0,5	Arrazan, sexuan, erlijioan... oinarritutako diskriminazioa	2 / 4
% 2,6	Gainerakoak Faltsutzeen eta Konstituzioaren aurka	10 / 23


2019 2022

Euskal Poliziak 2022an Euskadin ezagututako arau-hauste penal guztien % 15 bitarteko telematikoen bidez egin dira (20.147). Datu horrek esan nahi du % 41eko igoera izan dela 2019ko balioekin alderatuta, orduan % 12 baino ez baitziren. Ordezkaritzaren ehunekoa % 20raino igoko litzateke Ertzaintzak ezagutzen dituen delituak bakarrik kontuan hartuz gero.
% 41eko igoera hori batez ere iruzurren gorakadak eragin du (+% 26), bitarteko informatikoen bidez egindako delituen % 90 baitira; 2022an 18.000 salaketa baino gehiago izan ziren.

Ondoren, **mehatxuak edo jazarpena** eta **egoera zibilaren usurpazioa** datoz, % 8 baino ez guztira, % 26 eta % 29ko hazkundearekin, hurrenez hurren.

2022an, 2.887 inkulpazio kontabilizatu ziren ziberdelituengatik EAEn; delitu horiek 2019tik % 98ko igoera izan dute.

Inkulpazioak ziberdelituengatik Euskadin



· **Pertsonen aurkako** arau-hauste penalek –arau-hauste horietako bakoitzak orokorrean duen portzentajezko garrantzia ez da adierazgarria– alarma soziala eragiten dute, pertsonen osotasunari zuzenean egiten baitiote kalte.

- **Giza hilketen** kasuan, kontuan izan behar da arau-hauste hori, oro har, egileak planifikatu gabeko bulkaden edo inguruabarren ondorio dela, eta horrek zaildu egiten duela poliziaren jarduera prebentiboa ildo horretan. Nolanahi ere, urteko balantzean 2019an baino 4 giza hilketa gutxiago izan dira, 11 izatetik 7 izatera igaro baitira.

- 10/2022 Lege Organikoa, Sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa, indarrean sartu zenetik aurrera, **sexu-erasotzat** hartzen da sexu-askatasunaren aurka egindako edozein eraso, baldin eta pertsonaren adostasunik ez badago, eta larritasunaren eta inguruabar astungarrien araberako zigor-tarte bat dago. Legean egindako aldaketa horrek eragin du **sexu-erasoen** atalean % 70eko gorakada izatea 2022. urte osoan, kontuan hartuta urriaren 7ra arte sexu-abusutzat hartzen ziren eta legea indarrean sartu zenetik aurrera sexu-erasotzat hartzen diren sexu-jokabideak barne hartzen direla. Euskal Poliziak hainbat prebentzio-jarduketa egiten ditu, ezarritako zenbait aldagairen arabera (jaiegunak, gauekotasunak, aisiarako lekuak, etab.).

- **Lesioen** barruan sartutako arau-hauste penalak delitu guztien % 5 dira. Lautik bat genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren esparruan gertatzen da.

- **EI/GI** (ohiko lesioak eta tratu txarrak) % 8 igo da 2022an. Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren aurkako borrokan etengabeko hobekuntzaren testuinguruan, EBA (Etxekoen eta Emakumeen Babesa) garatzen da, Ertzaintzaren eta Euskadiko Udaltzaingoen artean partekatutako kudeaketako euskal sistema. Horren helburua da informazio eguneratua izatea etengabe, erabaki egokiak hartu eta indarkeria matxista mota horien biktimentzako arriskuak minimizatu ahal izateko.

· Emakumeak biktimizatu dituzten arau-hauste penalak (**indarkeria matxista**) egituratzeko, genero-izaeragatik emakumeak indarkeriaren biktima diren delitu-mota nagusiak jaso dira.

2022an, Ertzaintzak indarkeria matxistaren kasuak % 11 igo direla erregistratu du, horren barne hartuta bikotekidearen esparruan edo bikotekidetik kanpo indarkeria fisikoa edo psikologikoa, eta sexu-erasoa edo sexu-askatasunaren aurkako beste edozein delitu, etxetik edo bikotekidearen / bikotekide ohiaren esparrutik kanpo.

· **Gorrotoaren ondoriozko** arau-hauste penalak. Datu horiek interpretatzeko, garrantzitsua da kontuan hartzea 2022ko uztailaren 14an sartu zela indarrean Tratu Berdintasunerako eta Diskriminazio Ezarako Lege Integral berria (15/2022 Legea eta 6/2022 Lege Organikoa).

2022an, mota horretako arau-hauste gehienak arrazistak edo xenofoboak, eta orientazio eta identitate sexualak eragindakoak izan dira.

Aurreko urteekin alderatuta gehien hazi diren arau-hausteak sexuagatiko/generoagatiko gorroto-delituak dira. Igoera horren arrazoia da sexuagatiko/generoagatiko gorrotoa aplikatzen zaiela 2022an aisialdiko giroetan ziztadak jasan zituzten emakumeek salatutako lesio- eta derrigortze-delituei.

Arau-hauste horien sentsibilizazioa, detekzioa eta tratamendu penala Ertzaintzaren etengabeko hobekuntzaren parte dira. Beste ekintza batzuen artean, gorroto-delituei buruzko mahai egonkor bat du, eta aktiboki lankidetzan jarduten du beste erakunde batzuekin, hala nola UPV/EHUrekin, Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrarekin egindako hitzarmenaren bidez.


1 DATUAK
ERTZAINTZA ETA UDALTZAINGOAK






2019 2021 2022


Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko 2019/2021/2022:
EUSKADI




Ziberdeliturik gabeko delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko 2019/2021/2022:
EUSKADI



Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko 2019/2021/2022: Lurralde Historikoak






Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko 2019/2021/2022:

2019 2021 2022

DELITU PRESENTZIALAK / ZIBERDELITUAK

EUSKADI




Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko 2019/2021/2022:

2019 2021 2022

DELITU PRESENTZIALAK / ZIBERDELITUAK

Lurralde Historikoak





2021 2022

Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko 2019/2021/2022:

DELITU PRESENTZIALAK / ZIBERDELITUAK

Hiriburuak





Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko, udalerrietan 2019/2021/2022:

2019 2021 2022


biztanleriari buruzko datuen iturria: INE, 2022ko urtarrilak 1.

EAE-KO 15.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALERRIAK


ARABA:
Vitoria-Gasteiz, Laudio-Llodio.

BIZKAIA: Bilbo, Barakaldo, Getxo, Santurtzi, Portugalete, Basauri, Leioa, Durango, Galdakao, Sestao, Erandio, Amorebieta-Etxano, Mungia, Gernika-Lumo, Bermeo, Ermua.


GIPUZKOA:
Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz, Arrasate, Hernani, Tolosa, Lasarte-Oria, Hondarribia, Pasaia, Azpeitia, Andoain, Bergara.



Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko, udalerrietan 2019/2021/2022:




Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko, udalerrietan 2019/2021/2022:




Delinkuentzia-tasa 1.000 biztanleko, udalerrietan 2019/2021/2022:

2019 2021 2022


* Ertzaintzak jasotako datuak: Ermuko Udaltzaingoak Ertzain-etxera bideratzen ditu salaketak.






Arau-hauste penalak 2019/2021/2022, delitu-motaren arabera:

EUSKADI







Arau-hauste penalak 2022, delitu-motaren arabera: Lurralde Historikoak

ARAU-HAUSTE PENALAK 2022, DELITU-MOTAREN ARABERA:

ARABA




2019 2021 2022




Arau-hauste penalak 2022, delitu-motaren arabera: Lurralde Historikoak

ARAU-HAUSTE PENALAK 2022, DELITU-MOTAREN ARABERA:

BIZKAIA







Arau-hauste penalak 2022, delitu-motaren arabera: Lurralde Historikoak

ARAU-HAUSTE PENALAK 2022, DELITU-MOTAREN ARABERA:

GIPUZKOA


2019 2021 2022





Pertsonen aurkako arau-hauste penalak 2022, delitu-motaren arabera:


EUSKADI



* Alde batera uzten dira Internet bidez egindakoak.

Pertsonen aurkako arau-hauste penalak 2022, delitu-motaren arabera: Lurralde Historikoak


ARABA



* Alde batera uzten dira Internet bidez egindakoak.

Pertsonen aurkako arau-hauste penalak 2022, delitu-motaren arabera: Lurralde Historikoak

BIZKAIA




* Alde batera uzten dira Internet bidez egindakoak.

2019 2021 2022

Pertsonen aurkako arau-hauste penalak 2022, delitu-motaren arabera: Lurralde Historikoak

GIPUZKOA




* Alde batera uzten dira Internet bidez egindakoak.

2019/2021/2022an arau-hauste penalak, Ertzaintzak Estrategikotzat jotako arau-hauste penalen ondorioz:

EUSKADI

2019 2021 2022




* Mota honetako ziberdelituen arau-hauste penalak sartzen dira.

*Familia-indarkeriaren esparruko tratu txarrak eta lesioak zenbatzen dira, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria barne, bizikide izan edo ez.

2019/2021/2022an arau-hauste penalak, Ertzaintzak Estrategikotzat jotako arau-hauste penalen ondorioz: Lurralde Historikoak

ARABA




*Mota honetako ziberdelituen arau-hauste penalak sartzen dira.

**Ohiko tratu txarrak eta lesioak etxeko esparruan edo bikotekideak/bikotekide ohiak eragindakoak sartzen dira.

2019/2021/2022an arau-hauste penalak, Ertzaintzak Estrategikotzat jotako arau-hauste penalen ondorioz: Lurralde Historikoak

BIZKAIA




*Mota honetako ziberdelituen arau-hauste penalak sartzen dira.

*Familia-indarkeriaren esparruko tratu txarrak eta lesioak zenbatzen dira, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria barne, bizikide izan edo ez.

2019/2021/2022an arau-hauste penalak, Ertzaintzak Estrategikotzat jotako arau-hauste penalen ondorioz: Lurralde Historikoak

GIPUZKOA




*Mota honetako ziberdelituen arau-hauste penalak sartzen dira.

**Ohiko tratu txarrak eta lesioak etxeko esparruan edo bikotekideak/bikotekide ohiak eragindakoak sartzen dira.

Europar Batasuneko arau-hauste penal komunak[2] Euskadi 2022.


EUSKADI



[2] Europar Batasunak herrialde kide guztientzat oinarrizko komun gisa ezarritako tipologiak (EUROSTAT).

Europar Batasuneko arau-hauste penal komunak*. Lurralde Historikoak 2022


ARABA



[2] Europar Batasunak herrialde kide guztientzat oinarrizko komun gisa ezarritako tipologiak (EUROSTAT).

Europar Batasuneko arau-hauste penal komunak*. Lurralde Historikoak 2022


BIZKAIA



*Europar Batasunak herrialde kide guztientzat oinarrizko komun gisa ezarritako tipologiak (EUROSTAT).

Europar Batasuneko arau-hauste penal komunak*. Lurralde Historikoak 2022

GIPUZKOA



*Europar Batasunak herrialde kide guztientzat oinarrizko komun gisa ezarritako tipologiak (EUROSTAT).


2

ERTZAINTZAK ERREGISTRATUTAKO ARAU-HAUSTE PENALAK

2019 2021 2022

Euskadin pertsona inkulpatuen eta arau-hauste penalen kopurua[3] 2019/2021/2022

EUSKADI




[3] Atxilotutako pertsonak gehi ikertutako pertsonak.

Lurralde Historikoetan pertsona inkulpatuen eta arau-hauste penalen kopurua 2019/2021/2022

ARABA

2019 2021 2022




[3] Atxilotutako pertsonak gehi ikertutako pertsonak.

2019 2021 2022

Lurralde Historikoetan pertsona inkulpatuen eta arau-hauste penalen kopurua 2019/2021/2022

BIZKAIA




[3] Atxilotutako pertsonak gehi ikertutako pertsonak.

Lurralde Historikoetan pertsona inkulpatuen eta arau-hauste penalen kopurua 2019/2021/2022

GIPUZKOA

2019 2021 2022




[3] Atxilotutako pertsonak gehi ikertutako pertsonak.

Delitu-moten arabera erruztatutako pertsonen eta arau-hauste penalen kopurua 2019/2021/2022

2019 2021 2022


EUSKADI



[2] Europar Batasunak herrialde kide guztientzat oinarrizko komun gisa ezarritako tipologiak (EUROSTAT).

Ertzaintzak estrategikotzat jotako arau-hauste penalak. Euskadi 2022


EUSKADI



* Familia-indarkeriaren esparruko tratu txarrak eta lesioak zenbatzen dira, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria barne, bizikide izan edo ez.

Europar Batasuneko arau-hauste penal komunak[4] Euskadi 2022


EUSKADI




[4] Europar Batasunak herrialde kide guztientzat oinarrizko komun gisa ezarritako tipologiak (EUROSTAT).

Indarkeria matxista

2019 2021 2022







* Familia-esparrutik kanpoko norbaitek egindako sexu-askatasunaren aurkako delituak barne hartzen ditu.

OHARRA: 2022ko urriaren 7an jarri zen indarrean sexu-askatasunaren berme integralari buruzko 10/2022 Lege Organikoa, ordura arte gai horri buruz indarrean egon zen araudia aldatzen zuena.

Gorrotozko arau-hauste penalak*

2019 2021 2022






* Desberdina dela uste denarekiko arbuioarekin edo etsaitasunarekin zerikusia duten arrazoiengatik egindako delituak.

**Igoera horren arrazoia da sexuagatiko/generoagatiko gorrotoa aplikatzen zaiela 2022an aisialdiko giroetan izandako ziztadak jaso zituzten emakumeek salatutako lesio- eta derrigortze-delituei.

Arau-hauste penalak ziberespazioan. Ertzaintzaren datuak

ARAU-HAUSTE PENAL INFORMATIKOAK


2019 2021 2022



Ziberespazioan egindako arau-hauste penalak, delitu informatikoa edo Internet bidez egindako delitua, informatikaren eta telekomunikazioaren sistemen, aplikazioen eta/edo zerbitzuen esparruan egindako ekintza antijuridiko oro dira, dela haien bitarteko gisa, dela haien xede gisa.

Biktimari eragindako kalte ekonomikoa edo kaltea egilearen presentzia fisikorik gabe gertatzen diren —horrela, egilearen anonimotasuna erraztuz— arau-hausteak dira. Beste faktore erabakigarri bat delituaren kokapena da; izan ere, bere izaera birtuala dela eta, ez du zertan bat etorri behar egilearenarekin; askotan Estatuaren subiranotasunetik haratago dago, eta nazioarteko lankidetzara jo behar izaten da.


Arau-hauste horiek gora egiten ari dira pixkanaka 2017. urteaz geroztik. 2022an, 2019arekin alderatuta, % 41eko igoera izan da, eta 2017arekin alderatuz gero, % 124koa.



Interneten bidez egindako delitua.

* Honako delituak barne hartzen ditu: Jazarpena: tratu laidogarria, funtzionarioen edo langileen aurkako jazarpen larria; sekretuak argitara eta jakitera ematea; legez kanpoko sarbide informatikoa; 16 urtez behekoekin harremanetan jartzea helburu sexualekin; sexu-jazarpena; exhibizionismoa eta sexu-probokazioa; pornografia adingabekoekin/desgaitasuna duten pertsonekin; iruzurra; kalte informatikoak; jabetza intelektualaren aurkako delituak; TBra eta irrati zabalkundeko beste zerbitzu batzuetara legez kanpo sartzea; dokumentu publikoen, pribatuen eta bestelakoen faltsifikazioa; dokumentu faltsua erabiltzea; kreditu/zordunketa txartelak, bidaia-txekeak faltsifikatzea eta horiekin trafikatzea; egoera zibilaren usurpazioa; eta arrazagatiko diskriminazioa, etab.

Ziberdelituen arau-hauste penalen bilakaera. EAE



Urtez urte jarduera IKTetara[5] bideratzen duen testuinguru sozial eta ekonomikoaren bilakaerarekin bat etorriz, ziberdelitu horien hazkundea pisu espezifiko handiagoa hartzen ari da EAEko delitu-jardueraren bilakaera orokorrean.

Mota horretako arau-hauste penalak, 2022an, Euskal Poliziak[6] EAEn ezagutzen dituen arau-hauste guztien % 15 izan dira, eta % 20raino igoko lirateke Ertzaintzak ezagutzen dituen delituak bakarrik kontuan hartuz gero.

Hurrengo taulan, arau-hauste horien bilakaera ikus daiteke, 2017tik erregistratutako arau-hauste penal guztiekin alderatuta[7].

[5] Kriminalitatearen Estatistika Sistemaren (SEC) datuen arabera, 2021ean, etxeen % 84k ordenagailua zuten, eta horietako % 95ek Interneteko konexioa.
[6] Ziberdelituen datuak Ertzaintzak baino ez ditu ematen.
[7] 2017an eta 2018an ez zegoen 15.000 eta 25.000 biztanle arteko udalerrietako Udaltzaingoen daturik. Ertzaintzak ezagutzen dituen arau-hausteei buruzko datu konparatiboak ere ematen dira.


Ziberdelituen arau-hauste penalen pisuaren bilakaeraren konparatiboa

Ziberdelituen arau-hauste penal horien eragina delitu-tasara ere eraman da; hala, 2017an mila herritarretatik 4k jasaten zituzten eraso horietako batzuk, 2019an 6,5ek, eta 2022an, berriz, mila herritarretik 9k.

COVID-19aren pandemiak jarduera komertzialetan, harreman sozialetan eta telelanean IKTen erabilera indartu ahal izan badu ere, egia esan, arau-hauste horien eraginak azken urteetan ikusitako joerari eutsi dio. Ildo horretan, iruzurrak (besteak beste, kreditu- eta zordunketa-txartelekin egindako iruzurrak) ziberdelitu guztien % 90 dira.

Hala ere, ziberdelituen inguruan egindako polizia-ikerketak gauzatzeko zailtasun handienak, batez ere, Internet bidezko iruzurretan agertzen dira, ziberdelitugile gehienak hirugarren herrialdeetatik aritzen baitira. Horrek zaildu egiten ditu egileen izenak ezagutzeko eta haiek agintaritza judizialaren esku jartzeko lanak

Ildo horretan, Ertzaintza agenteak espezializatzeko prestakuntza-ekintzak egiten ari da azken urteotan; era berean, unitate espezifikoak sortzen ari da modus operandi desberdinen inteligentzia eta sare kriminalak aztertzeko eta ondoren ikertzeko, Udaltzaingoekin eta nazioko zein nazioarteko erakundeekin lankidetzan.



3 ERANSKINAK





3.1

2019 - 2021 - 2022

ERTZAINTZAK ETA UDALTZAINGOAK EZAGUTZEN DITUZTEN ARAU-HAUSTE PENALAK

(15.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAN) *

EUSKADI - ARABA - BIZKAIA – GIPUZKOA

*Udaltzaingoaren arau-hauste penalak lurralde historikoetako 15.000 biztanle baino gehiagoko udalerriei dagozkie. Araba: Vitoria-Gasteiz, Laudio-Llodio; Bizkaia: Bilbo, Barakaldo, Getxo, Amorebieta-Etxano, Basauri, Bermeo, Durango, Erandio, Galdakao, Gernika-Lumo, Leioa, Mungia, Portugalete, Santurtzi, Sestao; Gipuzkoa: Donostia/San Sebastián, Irun, Andoain, Arrasate-Mondragón, Azpeitia, Bergara, Eibar, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Lasarte-Oria, Pasaia, Tolosa, Zarautz.

Udaltzaingoaren mila biztanleko tasa dagokion lurraldeko biztanleria osoaren gainean kalkulatuta dago.

(EB). Europar Batasunak, bere estatistika-bulegoaren bidez (EUROSTAT), herrialde desberdinetako polizia-kidegoek ezagutzen dituzten arau-hauste penalei buruzko informazioa biltzeko, oinarrizko tipologia komun batzuk ezarri ditu, eta horiek EB siglekin adierazten dira.

(1). "Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak" tipologia honela banatzen da: etxebizitzetan egindako lapurretak eta etxebizitzako beste gela/eranskin batzuetan egindako lapurretak, garajeetan, trastelekuetan, atarietan, patioetan, eta abarretan egindako lapurretak barne.

(2). 2022ko urriaren 7tik aurrera, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko 10/2022 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik aurrera, sexu-abusuak desagertu ziren, eta sexu-erasotzat hartu ziren, beraz, data horren aurretik gertatutako gertaerei buruzkoak baino ezin dira izan.
Beraz, edozein analisi konparatibok kontuan hartu beharko du aldaketa hori.

Biztanleriari buruzko datuen iturria: INE, 2019ko, 2021eko eta 2022ko urtarrilaren 1ean.

ERTZAINTZAK ETA UDALTZAINGOAK EZAGUTZEN DITUZTEN ARAU-HAUSTE PENALAK MOTA ETA LURRALDEEN ARABERA, 15.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAN

EUSKADI

2019 2021 2022

	ERTZAINTZA, GUZTIRA					UDALTZAINGOA, GUZTIRA					EUSKAL POLIZIA, GUZTIRA				
ARAU-HAUSTE MOTA	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21
Homizidioa eta bere formak	53	80	86	62,26	7,50	7	15	18	157,14	20,00	60	95	104	73,33	9,47
Homizidio mingarria/erailketa burutua (EB)	10	11	7	-30,00	-36,36	1	-	0	-100,00	-	11	11	7	-36,36	-36,36
Homizidio mingarria/erailketa-saiakuntza (EB)	26	51	63	142,31	23,53	4	7	6	50,00	-14,29	30	58	69	130,00	18,97
Homizidioaren eta bere formen beste arau-hauste batzuk	17	18	16	-5,88	-11,11	2	8	12	500,00	50,00	19	26	28	47,37	7,69
Lesioak	6.793	6.349	8.198	20,68	29,12	1.338	1.373	1.646	23,02	19,88	8.131	7.722	9.844	21,07	27,48
Tratu txarrak familian	1.641	1.823	2.401	46,31	31,71	369	343	359	-2,71	4,66	2.010	2.166	2.760	37,31	27,42
Lesioak	4.537	3.990	5.107	12,56	27,99	812	849	1.073	32,14	26,38	5.349	4.839	6.180	15,54	27,71
Lesioak, beste arau-hauste batzuk	615	536	690	12,20	28,73	157	181	214	36,31	18,23	772	717	904	17,10	26,08
Tortura eta osotasunaren aurkakoak	2.859	2.534	2.443	-14,55	-3,59	435	506	557	28,05	10,08	3.294	3.040	3.000	-8,93	-1,32
Ohiko tratu txarrak familian	2.724	2.421	2.314	-15,05	-4,42	419	465	505	20,53	8,60	3.143	2.886	2.819	-10,31	-2,32
Tortura eta osotasunaren aurkakoak, beste arau-hauste batzuk	135	113	129	-4,44	14,16	16	41	52	225,00	26,83	151	154	181	19,87	17,53
Sexu-askatasunaren aurkako delituak (EB) (2)	618	694	784	26,86	12,97	115	123	144	25,22	17,07	733	817	928	26,60	13,59
Sexu-erasoa	195	186	340	74,36	82,80	26	19	35	34,62	84,21	221	205	375	69,68	82,93
Sexu askatasunaren aurkako beste arau-hauste batzuk	423	508	444	4,96	-12,60	89	104	109	22,47	4,81	512	612	553	8,01	-9,64
Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak	70.464	60.383	73.758	4,67	22,15	23.697	22.606	27.518	16,12	21,73	94.161	82.989	101.276	7,56	22,04
Ebasketa (EB)	29.742	22.034	28.739	-3,37	30,43	12.434	11.105	14.251	14,61	28,33	42.176	33.139	42.990	1,93	29,73
Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurretak	12.633	10.633	12.060	-4,54	13,42	3.339	3.021	3.662	9,67	21,22	15.972	13.654	15.722	-1,57	15,15
Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak (EB) (1)	5.016	4.346	5.108	1,83	17,53	683	660	925	35,43	40,15	5.699	5.006	6.033	5,86	20,52
Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak	3.388	2.511	3.027	-10,66	20,55	393	321	381	-3,05	18,69	3.781	2.832	3.408	-9,87	20,34
Etxebizitzako beste gela/eranskin batzuetan indarra erabiliz egindako lapurreta	1.628	1.835	2.081	27,83	13,41	290	339	544	87,59	60,47	1.918	2.174	2.625	36,86	20,75
Enpresetan indarra erabiliz egindako lapurretak	563	400	427	-24,16	6,75	77	56	70	-9,09	25,00	640	456	497	-22,34	8,99
Saltegi eta beste espazio itxi batzuetan indarra erabiliz egindako lapurretak	3.091	2.131	2.348	-24,04	10,18	493	581	653	32,45	12,39	3.584	2.712	3.001	-16,27	10,66
Gauzetan indarra erabiliz beste leku batzuetan egindako lapurretak	3.963	3.756	4.177	5,40	11,21	2.022	1.724	2.014	-0,40	16,82	5.985	5.480	6.191	3,44	12,97
Pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta (EB)	1.622	1.414	2.166	33,54	53,18	983	932	1.357	38,05	45,60	2.605	2.346	3.523	35,24	50,17
Kalteak	8.108	7.375	7.936	-2,12	7,61	3.938	4.607	4.624	17,42	0,37	12.046	11.982	12.560	4,27	4,82
Motordun ibilgailuak lapurtzea (EB)	845	642	645	-23,67	0,47	291	251	227	-21,99	-9,56	1.136	893	872	-23,24	-2,35
Iruzurra	15.827	16.506	20.327	28,43	23,15	2.130	2.008	2.483	16,57	23,66	17.957	18.514	22.810	27,03	23,20
Ondarearen aurkako beste arau-hauste batzuk	1.687	1.779	1.885	11,74	5,96	584	682	914	56,51	34,02	2.271	2.461	2.799	23,25	13,73
Segurtasun kolektiboaren aurkakoak	2.716	2.950	3.438	26,58	16,54	1.977	2.196	2.752	39,20	25,32	4.693	5.146	6.190	31,90	20,29
Osasun publikoa: droga-trafikoa (EB)	369	465	548	48,51	17,85	215	226	255	18,60	12,83	584	691	803	37,50	16,21
Alkoholaren, drogen eta abarren eraginpean gidatzea	1.360	1.306	1.605	18,01	22,89	1.189	1.280	1.702	43,15	32,97	2.549	2.586	3.307	29,74	27,88
Segurtasun kolektiboaren aurkako beste arau-hauste batzuk	987	1.179	1.285	30,19	8,99	573	690	795	38,74	15,22	1.560	1.869	2.080	33,33	11,29
Beste arau-hauste penal batzuk	8.920	9.957	10.385	16,42	4,30	1.493	1.828	2.262	51,51	23,74	10.413	11.785	12.647	21,45	7,31
GUZTIRA	92.423	82.947	99.092	7,22	19,46	29.062	28.647	34.897	20,08	21,82	121.485	111.594	133.989	10,29	20,07
TASA x 1.000 BIZTANLE (%)	41,86	37,46	44,88	7,20	19,78	13,16	12,94	15,80	20,06	22,14	55,03	50,40	60,68	10,27	20,39
Tasen arteko diferentzia absolutua				3,01	7,41				2,64	2,86				5,65	10,28

ERTZAINTZAK ETA UDALTZAINGOAK EZAGUTZEN DITUZTEN ARAU-HAUSTE PENALAK MOTA ETA LURRALDEEN ARABERA, 15.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAN

ARABA

2019 2021 2022

	ERTZAINTZA, GUZTIRA					UDALTZAINGOA, GUZTIRA					EUSKAL POLIZIA, GUZTIRA				
ARAU-HAUSTE MOTA	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21
Homizidioa eta bere formak	5	9	5	-	-44,44	-	2	-	-	-100,00	5	11	5	-	-54,55
Homizidio mingarria/erailketa burutua (EB)	1	2	-	-100,00	-100,00	-	-	-	-	-	1	2	-	-100,00	-100,00
Homizidio mingarria/erailketa-saiakuntza (EB)	1	1	3	200,00	200,00	-	1	-	-	-100,00	1	2	3	200,00	50,00
Homizidioaren eta bere formen beste arau-hauste batzuk	3	6	2	-33,33	-66,67	-	1	-	-	-100,00	3	7	2	-33,33	-71,43
Lesioak	909	1.012	1.251	37,62	23,62	233	300	344	47,64	14,67	1.142	1.312	1.595	39,67	21,57
Tratu txarrak familian	279	381	463	65,95	21,52	59	86	95	61,02	10,47	338	467	558	65,09	19,49
Lesioak	578	568	683	18,17	20,25	167	172	199	19,16	15,70	745	740	882	18,39	19,19
Lesioak, beste arau-hauste batzuk	52	63	105	101,92	66,67	7	42	50	614,29	19,05	59	105	155	162,71	47,62
Tortura eta osotasunaren aurkakoak	367	224	219	-40,33	-2,23	216	145	195	-9,72	34,48	583	369	414	-28,99	12,20
Ohiko tratu txarrak familian	355	207	200	-43,66	-3,38	216	145	195	-9,72	34,48	571	352	395	-30,82	12,22
Tortura eta osotasunaren aurkakoak, beste arau-hauste batzuk	12	17	19	58,33	11,76	-	-	-	-	-	12	17	19	58,33	11,76
Sexu-askatasunaren aurkako delituak (EB) (2)	79	89	119	50,63	33,71	27	45	40	48,15	-11,11	106	134	159	50,00	18,66
Sexu-erasoa	16	23	40	150,00	73,91	2	7	11	450,00	57,14	18	30	51	183,33	70,00
Sexu askatasunaren aurkako beste arau-hauste batzuk	63	66	79	25,40	19,70	25	38	29	16,00	-23,68	88	104	108	22,73	3,85
Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak	9.742	7.840	9.980	2,44	27,30	5.483	3.604	3.899	-28,89	8,19	15.225	11.444	13.879	-8,84	21,28
Ebasketa (EB)	3.963	2.879	3.773	-4,79	31,05	3.361	2.172	2.356	-29,90	8,47	7.324	5.051	6.129	-16,32	21,34
Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurretak	1.356	886	1.248	-7,96	40,86	636	407	511	-19,65	25,55	1.992	1.293	1.759	-11,70	36,04
Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak (EB) (1)	558	352	566	1,43	60,80	162	96	268	65,43	179,17	720	448	834	15,83	86,16
Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak	329	231	337	2,43	45,89	109	56	62	-43,12	10,71	438	287	399	-8,90	39,02
Etxebizitzako beste gela/eranskin batzuetan indarra erabiliz egindako lapurreta	229	121	229	-	89,26	53	40	206	288,68	415,00	282	161	435	54,26	170,19
Enpresetan indarra erabiliz egindako lapurretak	82	47	70	-14,63	48,94	18	11	10	-44,44	-9,09	100	58	80	-20,00	37,93
Saltegi eta beste espazio itxi batzuetan indarra erabiliz egindako lapurretak	304	218	212	-30,26	-2,75	117	95	74	-36,75	-22,11	421	313	286	-32,07	-8,63
Gauzetan indarra erabiliz beste leku batzuetan egindako lapurretak	412	269	400	-2,91	48,70	339	205	159	-53,10	-22,44	751	474	559	-25,57	17,93
Pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta (EB)	140	117	107	-23,57	-8,55	204	157	121	-40,69	-22,93	344	274	228	-33,72	-16,79
Kalteak	1.351	1.130	1.191	-11,84	5,40	746	715	733	-1,74	2,52	2.097	1.845	1.924	-8,25	4,28
Motordun ibilgailuak lapurtzea (EB)	63	62	51	-19,05	-17,74	26	27	25	-3,85	-7,41	89	89	76	-14,61	-14,61
Iruzurra	2.674	2.516	3.328	24,46	32,27	486	111	125	-74,28	12,61	3.160	2.627	3.453	9,27	31,44
Ondarearen aurkako beste arau-hauste batzuk	195	250	282	44,62	12,80	24	15	28	16,67	86,67	219	265	310	41,55	16,98
Segurtasun kolektiboaren aurkakoak	293	288	355	21,16	23,26	433	564	764	76,44	35,46	726	852	1.119	54,13	31,34
Osasun publikoa: droga-trafikoa (EB)	98	77	95	-3,06	23,38	50	51	39	-22,00	-23,53	148	128	134	-9,46	4,69
Alkoholaren, drogen eta abarren eraginpean gidatzea	106	101	119	12,26	17,82	250	316	367	46,80	16,14	356	417	486	36,52	16,55
Segurtasun kolektiboaren aurkako beste arau-hauste batzuk	89	110	141	58,43	28,18	133	197	358	169,17	81,73	222	307	499	124,77	62,54
Beste arau-hauste penal batzuk	1.280	1.631	1.690	32,03	3,62	338	296	279	-17,46	-5,74	1.618	1.927	1.969	21,69	2,18
GUZTIRA	12.675	11.093	13.619	7,45	22,77	6.730	4.956	5.521	-17,96	11,40	19.405	16.049	19.140	-1,37	19,26
TASA x 1.000 BIZTANLE (%)	38,23	33,25	40,73	6,53	22,48	20,30	14,85	16,51	-18,67	11,14	58,53	48,10	57,23	-2,21	18,98
Tasen arteko diferentzia absolutua				2,50	7,48				-3,79	1,65				-1,29	9,13

ERTZAINTZAK ETA UDALTZAINGOAK EZAGUTZEN DITUZTEN ARAU-HAUSTE PENALAK MOTA ETA LURRALDEEN ARABERA, 15.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAN

BIZKAIA

2019 2021 2022

	ERTZAINTZA, GUZTIRA					UDALTZAINGOA, GUZTIRA					EUSKAL POLIZIA, GUZTIRA				
ARAU-HAUSTE MOTA	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21
Homizidioa eta bere formak	33	37	41	24,24	10,81	1	3	3	200,00	-	34	40	44	29,41	10,00
Homizidio mingarria/erailketa burutua (EB)	4	6	4	-	-33,33	-	-	-	-	-	4	6	4	-	-33,33
Homizidio mingarria/erailketa-saiakuntza (EB)	18	20	30	66,67	50,00	1	3	3	200,00	-	19	23	33	73,68	43,48
Homizidioaren eta bere formen beste arau-hauste batzuk	11	11	7	-36,36	-36,36	-	-	-	-	-	11	11	7	-36,36	-36,36
Lesioak	3.859	3.333	4.280	10,91	28,41	726	772	961	32,37	24,48	4.585	4.105	5.241	14,31	27,67
Tratu txarrak familian	907	814	1.041	14,77	27,89	172	154	164	-4,65	6,49	1.079	968	1.205	11,68	24,48
Lesioak	2.608	2.260	2.899	11,16	28,27	441	513	666	51,02	29,82	3.049	2.773	3.565	16,92	28,56
Lesioak, beste arau-hauste batzuk	344	259	340	-1,16	31,27	113	105	131	15,93	24,76	457	364	471	3,06	29,40
Tortura eta osotasunaren aurkakoak	1.644	1.633	1.613	-1,89	-1,22	194	287	328	69,07	14,29	1.838	1.920	1.941	5,60	1,09
Ohiko tratu txarrak familian	1.559	1.562	1.532	-1,73	-1,92	191	270	290	51,83	7,41	1.750	1.832	1.822	4,11	-0,55
Tortura eta osotasunaren aurkakoak, beste arau-hauste batzuk	85	71	81	-4,71	14,08	3	17	38	1.166,67	123,53	88	88	119	35,23	35,23
Sexu-askatasunaren aurkako delituak (EB) (2)	328	356	398	21,34	11,80	55	51	71	29,09	39,22	383	407	469	22,45	15,23
Sexu-erasoa	117	106	172	47,01	62,26	10	4	10	-	150,00	127	110	182	43,31	65,45
Sexu askatasunaren aurkako beste arau-hauste batzuk	211	250	226	7,11	-9,60	45	47	61	35,56	29,79	256	297	287	12,11	-3,37
Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak	43.198	36.132	43.991	1,84	21,75	10.031	11.112	14.519	44,74	30,66	53.229	47.244	58.510	9,92	23,85
Ebasketa (EB)	19.795	14.349	18.725	-5,41	30,50	4.820	5.035	7.328	52,03	45,54	24.615	19.384	26.053	5,84	34,40
Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurretak	7.246	6.066	6.552	-9,58	8,01	1.654	1.540	1.775	7,32	15,26	8.900	7.606	8.327	-6,44	9,48
Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak (EB) (1)	3.274	2.746	2.869	-12,37	4,48	306	319	388	26,80	21,63	3.580	3.065	3.257	-9,02	6,26
Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak	2.208	1.459	1.637	-25,86	12,20	168	122	162	-3,57	32,79	2.376	1.581	1.799	-24,28	13,79
Etxebizitzako beste gela/eranskin batzuetan indarra erabiliz egindako lapurreta	1.066	1.287	1.232	15,57	-4,27	138	197	226	63,77	14,72	1.204	1.484	1.458	21,10	-1,75
Enpresetan indarra erabiliz egindako lapurretak	221	196	227	2,71	15,82	39	31	39	-	25,81	260	227	266	2,31	17,18
Saltegi eta beste espazio itxi batzuetan indarra erabiliz egindako lapurretak	1.513	982	1.028	-32,06	4,68	245	310	203	-17,14	-34,52	1.758	1.292	1.231	-29,98	-4,72
Gauzetan indarra erabiliz beste leku batzuetan egindako lapurretak	2.238	2.142	2.428	8,49	13,35	1.062	880	1.145	7,82	30,11	3.300	3.022	3.573	8,27	18,23
Pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta (EB)	1.189	1.000	1.666	40,12	66,60	609	599	1.027	68,64	71,45	1.798	1.599	2.693	49,78	68,42
Kalteak	4.732	4.207	4.585	-3,11	8,99	1.839	2.564	2.554	38,88	-0,39	6.571	6.771	7.139	8,64	5,43
Motordun ibilgailuak lapurtzea (EB)	502	388	391	-22,11	0,77	98	102	80	-18,37	-21,57	600	490	471	-21,50	-3,88
Iruzurra	8.791	9.178	11.038	25,56	20,27	658	765	1.043	58,51	36,34	9.449	9.943	12.081	27,85	21,50
Ondarearen aurkako beste arau-hauste batzuk	943	944	1.034	9,65	9,53	355	507	712	100,56	40,43	1.298	1.451	1.746	34,51	20,33
Segurtasun kolektiboaren aurkakoak	1.296	1.435	1.594	22,99	11,08	958	1.069	1.232	28,60	15,25	2.254	2.504	2.826	25,38	12,86
Osasun publikoa: droga-trafikoa (EB)	141	172	197	39,72	14,53	131	138	154	17,56	11,59	272	310	351	29,04	13,23
Alkoholaren, drogen eta abarren eraginpean gidatzea	619	631	763	23,26	20,92	524	588	792	51,15	34,69	1.143	1.219	1.555	36,05	27,56
Segurtasun kolektiboaren aurkako beste arau-hauste batzuk	536	632	634	18,28	0,32	303	343	286	-5,61	-16,62	839	975	920	9,65	-5,64
Beste arau-hauste penal batzuk	4.976	5.167	5.371	7,94	3,95	654	1.050	1.015	55,20	-3,33	5.630	6.217	6.386	13,43	2,72
GUZTIRA	55.334	48.093	57.288	3,53	19,12	12.619	14.344	18.129	43,66	26,39	67.953	62.437	75.417	10,98	20,79
TASA x 1.000 BIZTANLE (%)	48,01	41,66	49,84	3,83	19,64	10,95	12,43	15,77	44,08	26,94	58,95	54,09	65,62	11,30	21,31
Tasen arteko diferentzia absolutua				1,84	8,18				4,83	3,35				6,66	11,53

ERTZAINTZAK ETA UDALTZAINGOAK EZAGUTZEN DITUZTEN ARAU-HAUSTE PENALAK MOTA ETA LURRALDEEN ARABERA, 15.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAN

GIPUZKOA

2019 2021 2022

	ERTZAINTZA, GUZTIRA					UDALTZAINGOA, GUZTIRA					EUSKAL POLIZIA, GUZTIRA				
ARAU-HAUSTE MOTA	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21
Homizidioa eta bere formak	15	34	40	166,67	17,65	6	10	15	150,00	50,00	21	44	55	161,90	25,00
Homizidio mingarria/erailketa burutua (EB)	5	3	3	-40,00	-	1	-	-	-100,00	-	6	3	3	-50,00	-
Homizidio mingarria/erailketa-saiakuntza (EB)	7	30	30	328,57	-	3	3	3	-	-	10	33	33	230,00	-
Homizidioaren eta bere formen beste arau-hauste batzuk	3	1	7	133,33	600,00	2	7	12	500,00	71,43	5	8	19	280,00	137,50
Lesioak	2.025	2.004	2.667	31,70	33,08	379	303	341	-10,03	12,54	2.404	2.305	3.008	25,12	30,50
Tratu txarrak familian	455	628	897	97,14	42,83	138	104	100	-27,54	-3,85	593	731	997	68,13	36,39
Lesioak	1.351	1.162	1.525	12,88	31,24	204	165	208	1,96	26,06	1.555	1.326	1.733	11,45	30,69
Lesioak, beste arau-hauste batzuk	219	214	245	11,87	14,49	37	34	33	-10,81	-2,94	256	248	278	8,59	12,10
Tortura eta osotasunaren aurkakoak	848	677	611	-27,95	-9,75	25	75	34	36,00	-54,67	873	751	645	-26,12	-14,11
Ohiko tratu txarrak familian	810	652	582	-28,15	-10,74	12	50	20	66,67	-60,00	822	702	602	-26,76	-14,25
Tortura eta osotasunaren aurkakoak, beste arau-hauste batzuk	38	25	29	-23,68	16,00	13	25	14	7,69	-44,00	51	49	43	-15,69	-12,24
Sexu-askatasunaren aurkako delituak (EB) (2)	211	249	267	26,54	7,23	33	27	33	-	22,22	244	276	300	22,95	8,70
Sexu-erasoa	62	57	128	106,45	124,56	14	8	14	-	75,00	76	65	142	86,84	118,46
Sexu askatasunaren aurkako beste arau-hauste batzuk	149	192	139	-6,71	-27,60	19	19	19	-	-	168	211	158	-5,95	-25,12
Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak	17.524	16.411	19.787	12,91	20,57	8.183	7.931	9.100	11,21	14,74	25.707	24.301	28.887	12,37	18,87
Ebasketa (EB)	5.984	4.806	6.241	4,29	29,86	4.253	3.914	4.567	7,38	16,68	10.237	8.704	10.808	5,58	24,17
Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurretak	4.031	3.681	4.260	5,68	15,73	1.049	1.075	1.376	31,17	28,00	5.080	4.755	5.636	10,94	18,53
Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak (EB) (1)	1.184	1.248	1.673	41,30	34,05	215	246	269	25,12	9,35	1.399	1.493	1.942	38,81	30,07
Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak	851	821	1.053	23,74	28,26	116	144	157	35,34	9,03	967	964	1.210	25,13	25,52
Etxebizitzako beste gela/eranskin batzuetan indarra erabiliz egindako lapurreta	333	427	620	86,19	45,20	99	102	112	13,13	9,80	432	529	732	69,44	38,37
Enpresetan indarra erabiliz egindako lapurretak	260	157	130	-50,00	-17,20	20	14	21	5,00	50,00	280	171	151	-46,07	-11,70
Saltegi eta beste espazio itxi batzuetan indarra erabiliz egindako lapurretak	1.274	931	1.108	-13,03	19,01	131	176	376	187,02	113,64	1.405	1.107	1.484	5,62	34,06
Gauzetan indarra erabiliz beste leku batzuetan egindako lapurretak	1.313	1.345	1.349	2,74	0,30	621	639	710	14,33	11,11	1.934	1.984	2.059	6,46	3,78
Pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta (EB)	293	297	393	34,13	32,32	170	176	209	22,94	18,75	463	473	602	30,02	27,27
Kalteak	2.025	2.038	2.160	6,67	5,99	1.353	1.345	1.337	-1,18	-0,59	3.378	3.366	3.497	3,52	3,89
Motordun ibilgailuak lapurtzea (EB)	280	192	203	-27,50	5,73	167	122	122	-26,95	-	447	314	325	-27,29	3,50
Iruzurra	4.362	4.812	5.961	36,66	23,88	986	1.138	1.315	33,37	15,55	5.348	5.944	7.276	36,05	22,41
Ondarearen aurkako beste arau-hauste batzuk	549	585	569	3,64	-2,74	205	161	174	-15,12	8,07	754	745	743	-1,46	-0,27
Segurtasun kolektiboaren aurkakoak	1.127	1.227	1.489	32,12	21,35	586	572	756	29,01	32,17	1.713	1.790	2.245	31,06	25,42
Osasun publikoa: droga-trafikoa (EB)	130	216	256	96,92	18,52	34	37	62	82,35	67,57	164	253	318	93,90	25,69
Alkoholaren, drogen eta abarren eraginpean gidatzea	635	574	723	13,86	25,96	415	383	543	30,84	41,78	1.050	950	1.266	20,57	33,26
Segurtasun kolektiboaren aurkako beste arau-hauste batzuk	362	437	510	40,88	16,70	137	152	151	10,22	-0,66	499	587	661	32,46	12,61
Beste arau-hauste penal batzuk	2.664	3.159	3.324	24,77	5,22	501	485	968	93,21	99,59	3.165	3.641	4.292	35,61	17,88
GUZTIRA	24.414	23.761	28.185	15,45	18,62	9.713	9.403	11.247	15,79	19,61	34.127	33.108	39.432	15,54	19,10
TASA x 1.000 BIZTANLE (%)	33,74	32,73	38,91	15,31	18,88	13,42	12,95	15,53	15,66	19,88	47,16	45,60	54,43	15,41	19,37
Tasen arteko diferentzia absolutua				5,17	6,18				2,10	2,57				7,27	8,83

3.2

2019 - 2021 - 2022

ERTZAINTZAK ETA UDALTZAINGOAK EZAGUTZEN DITUZTEN ARAU-HAUSTE PENALAK 50.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAN.

VITORIA-GASTEIZ - BILBAO - BARAKALDO - GETXO - DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN - IRUN

(EB). Europar Batasunak, bere estatistika-bulegoaren bidez (EUROSTAT), herrialde desberdinetako polizia-kidegoek ezagutzen dituzten arau-hauste penalei buruzko informazioa biltzeko, oinarrizko tipologia komun batzuk ezarri ditu, eta horiek EB siglekin adierazten dira.

(1). "Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak" tipologia honela banatzen da: etxebizitzetan egindako lapurretak eta etxebizitzako beste gela/eranskin batzuetan egindako lapurretak, garajeetan, trastelekuetan, atarietan, patioetan, eta abarretan egindako lapurretak barne.

(2). 2022ko urriaren 7tik aurrera, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko 10/2022 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik aurrera, sexu-abusuak desagertu ziren, eta sexu-erasotzat hartu ziren, beraz, data horren aurretik gertatutako gertaerei buruzkoak baino ezin dira izan.
Beraz, edozein analisi konparatibok kontuan hartu beharko du aldaketa hori.

Biztanleriari buruzko datuen iturria: INE, 2019ko, 2021eko eta 2022ko urtarrilaren 1ean.

ERTZAINTZAK ETA UDALTZAINGOAK EZAGUTZEN DITUZTEN ARAU-HAUSTE PENALAK MOTAREN ARABERA, 50.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAN.
2019 – 2021 – 2022 URTEAK.

2019 2021 2022

VITORIA-GASTEIZ

	ERTZAINTZA, GUZTIRA					UDALTZAINGOA, GUZTIRA					EUSKAL POLIZIA, GUZTIRA				
ARAU-HAUSTE MOTA	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21	2019	2021	2022	Δ 22 19	Δ 22 21
Homizidioa eta bere formak	2	5	2	-	-60,00	-	2	-	-	-100,00	2	7	2	-	-71,43
Homizidio mingarria/erailketa burutua (EB)	1	2	-	-100,00	-100,00	-	-	-	-	-	1	2	-	-100,00	-100,00
Homizidio mingarria/erailketa-saiakuntza (EB)	1	1	2	100,00	100,00	-	1	-	-	-100,00	1	2	2	100,00	-
Homizidioaren eta bere formen beste arau-hauste batzuk	-	2	-	-	-100,00	-	1	-	-	-100,00	-	3	-	-	-100,00
Lesioak	728	793	998	37,09	25,85	233	296	339	45,49	14,53	961	1.089	1.337	39,13	22,77
Tratu txarrak familian	239	325	397	66,11	22,15	59	86	95	61,02	10,47	298	411	492	65,10	19,71
Lesioak	459	427	529	15,25	23,89	167	169	194	16,17	14,79	626	596	723	15,50	21,31
Lesioak, beste arau-hauste batzuk	30	41	72	140,00	75,61	7	41	50	614,29	21,95	37	82	122	229,73	48,78
Tortura eta osotasunaren aurkakoak	272	151	132	-51,47	-12,58	216	145	195	-9,72	34,48	488	296	327	-32,99	10,47
Ohiko tratu txarrak familian	266	140	121	-54,51	-13,57	216	145	195	-9,72	34,48	482	285	316	-34,44	10,88
Tortura eta osotasunaren aurkakoak, beste arau-hauste batzuk	6	11	11	83,33	-	-	-	-	-	-	6	11	11	83,33	-
Sexu-askatasunaren aurkako delituak (EB) (2)	59	73	99	67,80	35,62	27	45	39	44,44	-13,33	86	118	138	60,47	16,95
Sexu-erasoa	13	19	36	176,92	89,47	2	7	11	450,00	57,14	15	26	47	213,33	80,77
Sexu askatasunaren aurkako beste arau-hauste batzuk	46	54	63	36,96	16,67	25	38	28	12,00	-26,32	71	92	91	28,17	-1,09
Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak	6.537	5.989	7.780	19,01	29,90	5.450	3.546	3.841	-29,52	8,32	11.987	9.535	11.621	-3,05	21,88
Ebasketa (EB)	3.465	2.464	3.253	-6,12	32,02	3.342	2.152	2.334	-30,16	8,46	6.807	4.616	5.587	-17,92	21,04
Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurretak	884	508	747	-15,50	47,05	636	406	510	-19,81	25,62	1.520	914	1.257	-17,30	37,53
Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak (EB) (1)	370	183	298	-19,46	62,84	162	96	268	65,43	179,17	532	279	566	6,39	102,87
Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak	165	94	175	6,06	86,17	109	56	62	-43,12	10,71	274	150	237	-13,50	58,00
Etxebizitzako beste gela/eranskin batzuetan indarra erabiliz egindako lapurreta	205	89	123	-40,00	38,20	53	40	206	288,68	415,00	258	129	329	27,52	155,04
Enpresetan indarra erabiliz egindako lapurretak	28	16	27	-3,57	68,75	18	11	10	-44,44	-9,09	46	27	37	-19,57	37,04
Saltegi eta beste espazio itxi batzuetan indarra erabiliz egindako lapurretak	216	150	150	-30,56	-	117	95	73	-37,61	-23,16	333	245	223	-33,03	-8,98
Gauzetan indarra erabiliz beste leku batzuetan egindako lapurretak	270	159	272	0,74	71,07	339	204	159	-53,10	-22,06	609	363	431	-29,23	18,73
Pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta (EB)	130	100	97	-25,38	-3,00	204	157	120	-41,18	-23,57	334	257	217	-35,03	-15,56
Kalteak	911	732	799	-12,29	9,15	732	690	708	-3,28	2,61	1.643	1.422	1.507	-8,28	5,98
Motordun ibilgailuak lapurtzea (EB)	44	38	26	-40,91	-31,58	26	27	25	-3,85	-7,41	70	65	51	-27,14	-21,54
Iruzurra	962	1.949	2.622	172,56	34,53	486	103	121	-75,10	17,48	1.448	2.052	2.743	89,43	33,67
Ondarearen aurkako beste arau-hauste batzuk	141	198	236	67,38	19,19	24	11	23	-4,17	109,09	165	209	259	56,97	23,92
Segurtasun kolektiboaren aurkakoak	120	102	150	25,00	47,06	426	554	749	75,82	35,20	546	656	899	64,65	37,04
Osasun publikoa: droga-trafikoa (EB)	77	55	81	5,19	47,27	50	51	39	-22,00	-23,53	127	106	120	-5,51	13,21
Alkoholaren, drogen eta abarren eraginpean gidatzea	24	25	29	20,83	16,00	243	307	354	45,68	15,31	267	332	383	43,45	15,36
